



BEZEROEN SEGMENTAZIOA

“Descanso Eterno Funerarian” estilo berri bat eskaintzen dugu hileta-zerbitzuetan. Produktu ekologiko eta pertsonalizatuta saltzen ditugu. Horrez gain, zerbitzu moderno eta ekologiko bat da eta prezio ekonomiko batean.

Saltzen ditugun produktuak ondorengoak dira:

- Hilkutxak pertsonalizatuak eta ekologikoak, diseinu, material eta neurri desberdinekin
- Urnak ekologikoak: forma eta kolore desberdinetakoak.
- Loreak: lore sortak, koroak, zentroak, etab.

Bestalde, hauek dira eskainiko ditugun zerbitzuak:

- Belatokiak eta hiletak antolatzea
- Catering-a familia eta lagunentzat
- Ehorzketa edo errausketa kudeatzea
- Zeremonia erlijiosoa edo zibila prestatzea
- Laguntzeko telefono-zerbitzua

Enpresa honetan izango ditugun bezeroak lurralde desberdinetakoak izan daitezke baita kultura desberdinekoak ere. Nazionalak nahiz atzerritarrak izan daitezke.

Bezeroentzat produktu hauen erosketak noizbehinkakoak dira, ez dira ohikoak, beraz, produktu eta zerbitzu onak eta desberdinak nahiko ditu. Hori dela eta, gure produktuak aproposak izan daitezkeela pentsatzen dugu, produktu desberdinak direlako.

Hildako pertsona maitearen nortasuna eta gustuak islatzen dituen produktu baten bila dabiltzan pertsonak dira diseinuzko hilkutxak eros ditzaketen bezeroak. Bezero horiek diseinu-hilkutxan kalitatea eta diseinu eksklusiboak baloratzen dute eta prezio altuagoan ordaintzeko prest daude.

Dotoretasuna eta originaltasuna baloratzen dituztenak eta ohiko hilkutxetatik bereizten den produktu bat bilatzen dutenak.

Bestetik, ingurumenarekin kontzientziazatutako bezeroak ere izan daitezke, eskaintzen ditugun produktuak biodegradagarriak direlako eta ez dutelako ingurunea kutsatzen.

Azkenik, adin desberdinetakoak izan daitezke eta maila ekonomiko guztietako bezeroak, hilkutxa mota horiek gustu eta kalitate desberdineko materialak erabiltzen ditugulako. Diseinuak ere diferenteak dira, batzuk landuak eta beste batzuk xumeak.

Konpetentziari dagokionez, merkatu honetan konpetitzaile kopurua ez da oso handia. Oro har, hileta zerbitzuak eskeintzen dituzten enpresak hilkutxa normalak saltzen dituzte pertsonalizatu eta diseinurik gabe. Horren ondorioz, gure enpresak hutsune hori bete dezakeela uste dugu. Gainera, gaur egun familia askok maskotak dauzkate eta gure enpresan animalientzako hilkutxak ere saltzen ditugu.